

Euskal Herria

GIPUZKOA

# TRIKUHARRI

Irimotik Karakatera  
historiaurretik iraganez



## Asier Aranzabal Maiztegi

Eibarren jaio eta hazi arren, gaur egun Amorebieta-Etxanon bizi da. Gaztetatik Euskal Herriko eta Pirinioetako mendietan ibiltzeko eta naturari argazkiak ateratzeko zaletasuna izan du. Duela urte batzuetatik hona, zaletasun hauei lotuta, MILA GALLASTEGIREKIN batera munduan zehar zenbait bidaia egin ditu, natura eta kultura elkartzeko gizakiok

ezagutzen dugun modurik sinpleena medio, hots, OINEZ, edota bertakoen berezko garraio bideak erabiliz: kanoaz, zaldiz... Honela, Nepalen, Perun, Marokon, Etiopian, Mongolian, Indonesian, Aljeriako eta Tunisiako Saharan, Iranen, Malin, Groelandian Kaxmir eta Ladakhen izan da, besteak beste. Bidaiazteko filosofia honi esker, paisaia ikusgarriak, bertako biztanleak eta beraien kultura hurbilagotik ezagutu ahal izan du, eta bertan jasotako irudi eta esperientziak ikus-entzunekoak eskaintzen ditu ([mila\\_asier@yahoo.es](mailto:mila_asier@yahoo.es)).

## SARRERA

**H**URRENGO Ierroetan Gipuzkoan, Urretxu, Azkoitia, Elgoibar eta Soraluze artean dagoen mendilerroan zehar doan ibilbidea erakutsi nahi dizuet, hots: Irimo eta Karakate mendien artekoa. Ibilbidea umetatik ezagutzen dut, gurasoek sarri eramaten nindutelako hara. Haiei eskaini nahi diet artikulua, mendian ibiltzeko zaletasuna piztu zutelako nigan. Euskal Herrian aurki dezakegun ibilbiderik interesgarri eta ederrenetako delata deritzot. Alde batetik, ibilbidean zehar aurki dezakegun ondare arkeologikoagatik, 1920an Jose Migel Barandiaranek aurkitutako hamazortzi dolmenekin topo egingo baitugu eta, bestetik, geure herrialdeko mendien ikuspegi mirezgarriez goza dezakegulako: Aiako harria, Txindoki, Hernio, Izarraitz, Aizkorri, Udaltz, Anboto, Gorbeia... baita itsasoa ere!

Duela urte batzuk Mila eta biok ibilaldi hau egiten ari ginela, aztarnategi arkeologikoenganako jakin-mina piztu zitzaidan. Jose Migel Barandiaranen obrak aztertzen hasi nintzen, haren esplorazio egunkaria aurkitu nuen arte: Duela 90 urte, Jose Migel Barandiaran antropologo prestatu aurkitu zituen, 1920ko abenduaren 26an anaiarekin Irukurutzetara txangoan zihoala. Berehala Eusko Ikaskuntza elkarteari eman zion aurkikuntzaren berri eta beranduago, 1921eko ekainaren 2an Carlos de Orueta doktorearen eta Eugenio Arrillaga presbitero jaunaren laguntzaz egindako beste txango batean, lehendabiziko aldia ikusi ez zituen beste dolmen batzuk aurkitu zituen, betiere *Vasconia Antigua: Tras la huella del hombre* (II) liburuaren arabera. Liburu honek 1921eko ekainaren 31 eta uztailaren 10a bitartean Barandiaranek mendilerro honetan egindako esplorazioen egunkaria jasotzen du, Barandiaranen beraren grafikoak eta gogoetak barne. Hauen bitartez, historiaurreko dolmenak izango dira gure zeharkaldiaren gidari, bai geografikoki eta bai historikoki, ibilaldian aurrera egin ahal, denboran ere atzera egingo baitugu.



■ Kerexetaegia hegoaldekoa aztertutako aztarnategien artean handienetako da: 20 metroko diametroa eta 2,50 metroko altuera du erdigunean. Etxandako harlauza handi bat dago oraindik ikusgai

Barandiaranek *Elosua-Soraluze mendilerroaren estazio megalitiko*a izena ematen dio, Trekutz ez beste dolmen guztiak, ibilaldiaren tarte honetan aurkitzen direlako. Eusko Jaularitzak ere izen honekin *kultur ondare* deklaratu zuen 2000ko maiatzaren 19ko ebazpenean. Nik, aldiz, ibilaldia Irimoraino (Urretxu) luzatzea proposatzen dizuet, mendilerro osoa ibili ahal izateko.

Mendilerro hau Deba eta Urola ibaien artean kokatzen da. Deba ibaia Antzuola, Bergara, Osintxu eta Soraluze herrietan zehar doa. Urola berriz, Zumarraga, Urretxu eta Azkoitia herrietatik. Hegoaldean Deskargako mendateak mugatzen du (429 m), Bergara eta Zumarraga arteko errepedeak hain zuzen ere, eta iparraldean, berriz, Azkarateko mendateak mugatzen du (413 m),



# EN BIDEA

**E**l recorrido que propone Asier Aranzabal nos invita a visitar una zona clásica y frecuentada de la montaña vasca, pero con una mirada novedosa. El autor ha recogido y nos ofrece multitud de datos acerca de los numerosos megalitos que pueden visitarse a lo largo del cordal que une Urretxu y Elgoibar desde Irimo a Karakate, de modo que además de realizar el recorrido integral del cresterío siguiendo sus indicaciones, podremos ir visitando estos escondidos monumentos del pasado que jalonan sus cimas y arboledas. Se trata de dólmenes y túmulos explorados antes de la guerra por el célebre equipo de etnógrafos formado por Telesforo Arantzadi, Jose Migel Barandiaran y Enrique Eguren. Pretexto para visitar unas cimas clásicas a la par que viajamos en el tiempo, resultará ser para el caminante atento una oportunidad idónea de conocer este rincón de nuestro país con una profundidad poco común.

• Trekutzera heldu aurretik alertze baso eder batean zehar ibiliko gara

Elgoibar eta Azkoitia arteko errepideak alegia. Gailurrik garaienak Irukurutzeta (898 m) eta Irimo (896 m) dira. Mendilerroko tontorrik pago eta alertze basoez estalita daude ibilbidearen zati handienean. Garo-leku ugari ere badira, otearen horiaz kontraste polita egiten dutelarik. Gizakiontzat eskura dauden beheko mendi-mazelak, pinuz eta izeiz beteta daude. Hala ere, ibilbideak ez du bere xarma galtzen. Urolaldeko eta Debaldeko hegaletan iturri ugari ere badira. Askoren ustez, oparoena eta zapoetsuena Pol-Pol izeneko da.

Irimo izango da lehendabiziko jomuga, Urretxutik abiatuta 450 metroko desnibela gaintu ondoren. Gainontzeko zeharkaldiak gorabehera txikiak ditu, Agirreburu eta Irukurutzetako dolmenetarako igoerak eta Elgoibarrerainoko jaitsiera azkarra izan ezik. Guztira hogeit bat kilometro ibiliko ditugu. Beraz, zeharkaldia erdi-mailakotzat har daiteke. Egun osoko ibilaldi bezala hartzea gomendatzen dizuet, dolmenak lasai behatzeko eta inguruko mendiekin igarkizun jolasetan aritzeko. Jolas hau errazteko norabideak eta panoramikak gradutan adierazi ditut iparrorratz baten bitartez zailtasunik gabe identifikatu ahal izateko. Era horretan inguruko mendiak eta lekuak erraz aurki ditzakezue eta mendian hasi berriak zaretenontzat, trebetasuna hartzeko ariketa polita izango da aldi berean.

Presta gaitetzen, beraz, denboran zeharreko ibilaldiari ekiteko gure arbasoek hilezintasuna erdietsi zuten lekuetara.

## IRIMORANTZ

**Z**EHARKALDIA Santa Barbarako basilizan hasten da, Irimo mendiaren beheko hegalaran lautadatxo batean hain zuzen. Basilizari atxikita Urretxuko aterpetxea dago. Elizatxo honen jatorria Erdi Arokoa bada ere, gaur egungo eraikina beranduagokoa da. Domingo Mendiarezek XVI. mendean eginiko erretoa dauka. Bertara Urretxutik heltzen da, Iparragirrenen




MAPAS NONDIK

jaioterritik alegia, hiru bat kilometroz GI-3771 errepideari jarraituz. Urretxu XIV. mendean sortu zen Gasteizko Forua harturik. Foru hau Erdi Aroko aurreratuenetakoa zen, biztanleriaren eskubideei eta mendi eta larreen aprobetxamenduari dagokionez behintzat. Gaur egun, herriaren alde zaharrak Erdi Aroko egitura mantentzen du. Santa Barbaratik Ipiñarrieta jauregia ikusten da, XVI eta XVII. mendeetan gortesau desberdinen egoitza izan zena. Baita bidaiari entzutetsuen ostatu ere, besteak beste, Velázquez margolaria eta Felipe IV.a erregea. Haren ondotik XVI eta XVII. mendeetako Gipuzkoako errepiderik nagusia igarotzen zen, Irun eta Madril lotzen zituena, hain zuzen ere.


Santa Barbara basilizatik Irimo gailurreko gurutze erraldoiraino igoko gara. Igoera hasteko bi aukera ditugu. Bata, hasieran harrizkoa den baina ondoren lurrezko bihurtzen den pistari jarraituz edo, bestea, elizatxoaren aurrerko zuhaitz arteko atsedenekutik hasten den bidezidorrari aldapan gora zuzenean jarraituz. Merenderoaren sarreran Irimo mendiari buruzko informazio kartela aurkituko dugu. Berehala pistarekin bat egingo dugu, baina denbora gutxirako. Ezkerrera egiten duen bihurgune batean lehen monolitoa adierazten duen seinalearen ondoren, pista utzi eta eskumaldera basoan sartzen den bidezidorrari jarraituko diogu. Aldika-aldika, sigi-sagaka datorren pistarekin gurutzatuko gara. Behealdean pinuak dira nagusi, gorago alertzeak eta altuera irabazi ahala pagoak agertuko zaizkigu. Udaberriean eta udan, garoak berdez blaitzen du basoa. Txorien soinuak alde batetik eta Zumarragako fundizio industriaren zaratak bestetik, nahaste ezohikoaz girotzen dute igoera osoa. Bide erdian eguneko lehen turria aurkituko dugu: Lizarriturri. Izenak dioskunez lizarrez inguratuta dago. Metro batzuk aurrerago txabolatxo eta aterpetxo baten aurretik pasatuko gara. Bidea sigi-sagan doa Irimoko gurutzeraino (853 m). Ez da gailurra ordea.

Irimoko gurutzetik dugun ikusmira, egindako ahaleginaren ordainsari bihurtzen da: Azpian Urretxu eta Zumarraga ditugu. Legazpi ere ikusgai da (SW); Andutz (Deba, N), Izarraitz (NNE 20°), Hernio (ENE 60°), Aiako harria (ENE 65°), Izazpi (E 80°), Kizkitza (ESE 100°), Pirinioak (E 90°), Txindoki eta Aralar, (HE 120°), Urbasa, (SE140°), Aratz, (SSE 160°), Aizkorri (S 180°), Legazpiko Gorostiaga (SSW 200°) eta abar. Gurutzearen azpiko aterpean mendigoizaleen Lurdesko Amari egin diezaiokegu bisita.





■ Irukurutzeta (899 m) gailurreko hiru kurutzeek Elgoibar, Bergara eta Azkoitiaren lur eremuen bategitea adierazten digute



■ Barandiaranen ustetan, tamaina erraldoiko Arribiribileta harria beste nonbaitetik ekarritakoa da. Ez dago bere jatorrizko lekuan

## TREKUTZERANTZ

**I**RIMO mendia *Zazpipuntak* izeneko mendilerroan altxatzen da, Deba eta Urola ibaien arroak banatzen dituena. Orain, mendilerroan zehar mendebalderantz (WNW 280°) joko dugu alertze nahiz pago baso eta ote tarteak txandaka zeharkatuz. Goraka eta beheraka ibiliko gara zazpi puntak gaintuz: Irimo, Arbeleta, Losakate, Arrizuri, Trintxuleku (Urretxu eta Antzuolako udal barrutiak banatzen dituen mugarria gainean duela) eta Meaka. Trintxulekutik hego-mendebaldera ikuspegi berria daukagu: Udaltax eta Anboto (W 270°), Oriol, Ipizte eta Gorbeia (WSW 260°), Galdaramuño (NW 310°), Urko (NW 320°), Oiz (NNW 325°) eta abar. Gure zeharkaldi osoaren ibilbidea ere ikus daiteke: Agirreburu (NW 320°), Irukurutzeta (NNW 340°) eta Karakate (NNW 330°). Baita Meaka edo Gaztelugain elkarreak ere.

Jarraian mendilerroaren ezkeraldera egingo dugu, dakargun norabidea (300°) mantenduz. Konturatu gabe, alertze artean eta txorien soinuz inguraturik, jaitsiera aldapatsu bihurtzen da, norabidea ipar-ipar-mendebaldera (NNW 340°) joz. Laster gure norabidearekin gurutzatzen den belarrezko basabidearekin topo egingo dugu: Nebera aldera doa. Guk beherantz eta ezkeraldera joko dugu (WSW 240°), baina oso adi, lurlean eta enborretan urdin koloreko markek Meakako leporantz (670 m) biraraziko digute eta (W 260-280°). Han iturria duen askaldegia polit bat aurkituko dugu, urki, lizar, astigar eta pago artean. Urretxu eta Zumarragakoek Trekutz esaten diote leku honi. Antzuolarrek, aldiz, Gaztelugain.

Gaztelugain elkarrea ere aurrean daukagu. Haren eremuatan aurkituko dugu geure lehen helburua: Trekutz izeneko dolmena. Elkarteko hesiaren barrura sartu behar da horretarako.

## GORLA ETA ELOSURANTZ

**M**EAKAKO iturriaren ondotik eta elkarrearen eskubialdetik ipar-mendebaldera doan bidezidorrari jarraituko diogu linea elektrikoaren azpian, porlanezko bidegurutzearekin topo egin arte. Hego-mendebaldeko pista Antzuolaraino jaisten da. Gure helburua ama lurra eta naturarekin kontaktuan ibiltzea denez, ahal den neurrian behintzat, basoan sartuko gara mendebaldeko norabidea mantendurik. Pinu eta Douglas izei ikaragarrien artean aldapa gora egingo dugu tontor txiki bat gaintitu arte. Bertatik hurrengo jomuga ikus dezakegu: Gorla elkarrea. Basoan barrena,

alertze eta pinu artean jaitsiko gara berriz ere, uso ehizarako postuen aldamenetik pasatuz, lehenago alde batera utzitako zementuzko pistarekin topo egin arte. Oraingoan ere pista eskubialdean utzi eta aldapan gora joko dugu iparraldera, Pagamendi tontorra gaintuzeko eta, ondoren, Korosterratzu askaldegira jaisteko. Atsedena hartu eta zerbait jateko leku bikaina dugu, astigar eta haritzen gerizpean. Toki Eder elkarrea ere ondoan daukagu. Bertako bazkide batek dioskunez, leku honek antzina Lapurgain izena ere bazuen, lepo honetan, Zumaiako portutik Araba aldera zihozaren merkatariei erasotzen baitzieten lapurrek.

Iparraldera doan pistari nahiz Toki Eder elkarrearen ondoan doan bidezidorrari jarraituz, basotik irteetan Azkoitia eta Erloren (Izarraitz) sekulako ikusmiraz goza dezakegu (NE). Aurreraxeago, Gorla elkarrearen parean gure eskumaldean belar artean ezkatzen diren eskaileratxo batzuei jarraituz gero, Gorlako iturriaraino jaits gaitezke egarria kendu eta kantinplora betetzeko.

Gorla elkarrea inguratzen duen pista segiturik, Itxusmendi (724 m) ezkeraldea utzi eta, zenbait minututan iritsiko gara Iturriberi askaldegira. Atsedena Karakatera eta Bergara lotzen dituen errepedearen ondoan dagoenez, eguraldi oneko egunetan jende asko hurbiltzen da. Horregatik kantina bat ere badago, freskagarriren bat edan edota ardo nahiz sagardo tragoa jotzeko aukera dugularik. Iturria ere bide ondoan dugu. XX. mendearen hasieran ere mendilerro honetan inguruetakoz bizilagun ugari etortzen omen zen egun-pasa. Barandiaranek *turista* deritze bere obran, Atxolin, Irukurutzeta eta Pol-Pol lekuriak ospetsuenak izanik.

Askaldegia eta Altzazu elkarrearen ondotik aurrera egingo dugu Azkoitia eta Bergara lotzen dituen errepedea zeharkatu arte. Kartel batek historiaurreko aztarnategiaren presentzia ohartarazten gaitu lehen aldiz, "Tumuluen xenda" izeneko PR-GI-94 ibilbidearen hasiera baita. Irukurutzetan, PR-GI-109 ibilbidearekin bat egingo dugu Karakatera (NNW 320° tara ikusgai) joateko. Beraz, hemendik aurrera marka txuri eta horiek adieraziko digute bidea ia ibilaldiaren bukaeraraino.

Bentaoste baserrira eta Elosuko Santutxu ermitaraino jarraituko dugu. Elosua auzunean gure bidea baino beheraxeago aurkitzen da, mendiaren hegalean, baserri artean. Eliza, plaza, pilotalekua eta jatetxe bi ere baditu. Ermita aurrean, kalbario edo gurutzebidearen ondoan eta pagoen itzalean harrizko mahaietan eser gaitezke, indarrak berriturik, aurrean dugun aldapari ekin ahal





■ Etxeburutxo baserriaren ondotik pasatuko gara Agirreburu mendira igotzen hasi aurretik

izateko. Barandiaranen egunkariaren irakurketa laburra ere egin dezakegu:

Barandiaranek Elosuko on Francisco de Zalaña apaizari aipamen berezia egiten dio, honek bere etxean hartu baitzituen indusketa lanen garaian. Ostatu emateaz gain, espedizionarioentzako bazkaria mendira igotzeko ardura ere hartu zuen. Baso artean gidaritza lanak ere egin zituen. Barandiaranek aipamen berezia egiten dio ere etxeak zuen telefono publikoari, garai haietan ezohiko tresna baitzen.

Elosua utzi aurretik kondairatxo bat irakurtzeko aukera ere izango dugu: Gauetz Elosutik hurbil zebilela gizonezko batek Mari ikusi zuen harri handi baten gainean eserita haria egiten. Handik gutxira, gizona Bergarara heltzeko zegoela, ekaitz beldurgarria hasi zen. Mariri buruzko kondaira gehiënetan Mari ekaitzak iragartzen edo sortzen agertu ohi da, Barandiaranen arabera.

## IRUKURUTZETARANTZ

**I** BILBIDEARI ipar-mendebaldeko norabidean ekingo diogu. Berrehun bat metro aurrerago, Labeaga eta Etxeburutxo baserrien ondoren, bidea bitan banatzen da. Guk eskuinekoa hartuko dugu (bi aukerek marka zuri eta horiak dituzte). Bideak, pinu eta izei artean hasieran eta pago luze eta estuen artean ondoren, Agirreburu (860 m) gailurreraino garamatza. Argiune batzuei esker Azkoitia eta Azpeitia ikus ditzakegu ipar-ekialdean (ENE 60°). Urrutixego Hernio azpian Zelatungo lepoa ondo bereizten da (E 90°) baita, hegoaldean, atzean utzi dugun Irimo (SSE 160°) ere. Telebistako antenetara heltzeaz gaudela, Atsobaso lepoa gainditu eta metro batzuetara, bidearen ezker aldean Agirreburuko trikuharria aurkituko dugu. Arantzadi, Barandiaran eta Egurenen trikuharri honetan zabalduko kraterrean ganberaren bi harlauza ikusten dira. 1921eko indusketan giza-aztarnak eta zeramika zatiak jaso ziren. Harleunezko aizkora bat ere aurkitu zuten. Mendi tontorraren hegoaldean bada beste tumulu bat, Egizabalgo muñoa izenekoa, 1979ko hamarkadan aurkitua.

Bideraino bueltatu eta pagadian sartuko gara (NNW 340°). Segur aski, zeharkaldiaren zatirik ederrenean goaz. Pagoak gazteak dira eta haien enbor meheen gainean hazitako goroldioak, ingurunea kolore berdeez betetzen du. Bide nagusiari jarraitu beharrean, eskuin aldean doan bidexka ez oso nabari bati jarraitzen baldin badiogu, baso magiko batean egotearen sentsazioa areagotzen da. Tarteka-marteka hego-mendebaldera (SSW) begiraturaz, Elgeta ikus dezakegu, Gipuzkoako herririk garaiena. Atzean Intxorta mendia, hegoaldera Udaltx, baita Eibarko Egoarbitza eta Galdaramuño mendiak ere. Bidexka honek gandorrean zehar Kerexeta Goiegia edo Elosumendi tontortxoraino (836 m) garamatza. Atzera egin gabe, norabide egokia bilatuz bide nagusira jaitsi behar dugu, altzifre sail itxi batek gandorrean jarraitzea zaildu egiten baitu.

Aurrerago pago eta alertze artean Maurketa tumulua aurkituko dugu Intxausta txabolaren aurrez-aurre. Kerexetaegia hegoaldekoa eta Kerexetaegia iparraldekoa dira hurrengo tumuluak, txabolatik berrehun bat metrotara, ipar-mendebaldeko (NW 320-330°) norabidean.

Kerexetaegia hegoaldekoa aztertutako azternategien artean handienetako da: 20 metroko diametroa eta 2,50 metroko altuera du erdigunean. Bertan harlauza handi bat etzanda (dolmenaren estalkia 2,60 x 2,5 x 0,35 m) eta berau inguratzen zituzten hiru harlauza (txikiagoak) zutik aurkitu zituzten hilobi ganbera osatuz. Gainaldeko harlauza ikusgai da oraindik. Bertan zeramika zatiak, gezi baten punta eta harrizko aizkoratxoak aurkitu zituzten.

Kerexetaegia iparraldekoa izeneko tumulua aurkitzea zailxoagoa da, aurrekoaren aldamenean egon arren, ote eta garo artean ezkatutua dagoelako. Kerexetaegia hegoaldekoa ikusi ondoren, ez da bidera itzuli behar. Atzealdeko zuhaitz eta garo artean sartu eta ipar-mendebaldeko (NW) norabidean metro batzuetara tumulua babesten duen hesia zeharkatuko dugu. Ondoren norabide berberari jarraituz, pago artean Kerexeta dolmenera jaitsiko gara, bide nagusiarekin bat eginez. Barandiaranen esanetan, pasatu ditugun tumulu hauen aurkikuntza izan zen kanpainako lanik neketsuena, garai hartan basoa oso itxia omen zen eta.

Kerexeta dolmenean (sasitza artean dago) ezker aldera aldentzen bagara (W 270°) Pol-Pol iturriari kantineplora bete ditzakegu. Kerexetatik iparraldeko norabidean jarraituz gero, berehala erdietsiko dugu Irukurtzeta (899 m) gailurra. Mugarriaren gaineko hiru gurutzek Elgoibar, Bergara eta Azkoitiaren lur eremuen bategitea adierazten digute.

Bertatik panoramika bikainaz goza dezakegu. Iparraldean Arno, atzean itsasoa duelarik. Mendi honi begira, haurtzaroko uda garaiak datozkit burura. Itsasalderako bidean, mendi honen tontorra ikusgai zenean, zera errepikatzen zidan beti amak: *Arno tontorra lainoz estalita egonez gero, itsasaldean ez da hondartzarako girorik izango*. Ekialdera Izarraitz (ENE 60°), Hernio eta Zelatungo lepoa (E 90°), Azpeitia (E 92°), Txindoki eta Aralar (SSE 140°), Elosumendi eta Agirreburu (SSE 160°), Aizkorri (S 180°) eta mendebaldeantza, Elgea mendilerroa (SSW 200-220°), Udaltx (SW 240°), Anbotu (WSE 260°) eta abar.

Tontoretik mendebaldera metro gutxitara aurkitzen da Irukurtzetako trikuharria. Dolmen hau Barandiaranek esploratu zuen lehendabizikoa da, bere kokapenagatik mendi inguru honetan agerian baitzegoen. Inguruko biztanleek ere ezagutzen zuten, bera baino lehenago beste inor altxor bila aritzea ekidin nahi zuen. Garai haietan ziotenez, Muskirritxu mendian, Pagobedeinkatu eta Elgoibar artean, urrez betetako kanpai handi bat omen zegoen lurperatuta, bidexka baten azpian. Bidexkak ugariak ziren eta horrek zaildu egiten zuen altxorra aurkitzea.





■ *Ibilaldi osoan zehar Anboto ikus dezakegu, baita altueran kokatua dagoen Elgeta herria ere*



■ *Kurutzebakar atzean utzi eta Nahasiko Goerantz goazela, Atxolin ikus dezakegu aurrez-aurre*

Inguru hartan ardi ugari ibiltzen zenez, noizbait hauen apatxek agerian jarriko zutela uste zen. Irukurutzeta eta Elgoibar artean ere urrezko hamabi kaxa lurperatuta zeudela esaten zen. Haietako hamaika harrizko tontor banaren azpian gordeta zeuden; hamabigarrena non egon zitekeen inork ez zekien. Halabeharrez, Barandiaranek hamaika dolmen aurkitu zituen Irukurutzeta eta Elgoibar artean.

Lur azpian gordetako altxorren sinesmenek zenbait kobazulotan antzinako txanpon eta beste zenbait gai preziazuraren aurkikuntzan zuten oinarria. Irukurutzetako urrezko kanpaiaren inguruan, honako elezahar hau kontatu zion Soraluzeko Felipe de Arizaga jaunak Barandiarani 1910 urtean: Gizon batzuk tumulua ireki eta altxorren bila zebiltzala, adarrak eta basahuntz hankak zituen giza itxurako mamu bat agertu omen zitzairen barnealdetik.

Dolmen hauetako batzuk erromatarren aurreko garaian kontenplazio lekuak izan omen ziren, garaiko jainkoak gurtzeko. Eskaintzak Lurra jainkosari zuzentzen zitzaizkion. Diotenez, Mari izan daiteke gurtzearen jatorria. Sinesmen hauek direla eta, euskal arkeologoek historiaurreko aztarnategietan oso gauza gutxi aurkitu dituzte.

Barandiaranek bere egunkarian dioenez, Bergarako Lezarrisoro baserriko agure batek maiatzaren lehendabiziko igandean urtero Irukurutzetako gailurrera igotzen zen kapela luzean gurutze bat zeramala eta atzetik jende ugari jarraitzen ziola. Kristautasunak lekuan lekuko ohiturak eta sinesmenak bere egin izanaren beste adibide bat dugu hau. Barandiaranen garaian oraindik, kapela luzea eta gurutzea eramateko ohiturarik egon ez arren, maiatzaren lehendabiziko igandean erromeria ospatzen zen Irukurutzetan. Irukurutzeta eta Pagobedeinkatuko gurutzeetan konjuruak esaten dituzte uzta oparoa ziurtatzeko. Gaur egun ere, erromeria egiten da Irukurutzetara, Atsedentxaboleta, Bergarako Kapirixo eta Osintxuko Txurrumillo taldeek antolatuta: jan-edan gisa txorizoa eta salda, eta dantzarako trikitilariak joan ohi dira. Meza emateko ohitura galdu dute, ordea.

Kontu interesgarri hauek irakurtzen ditugun bitartean, inguruko pagoen gerizpean eseri eta sabela bete dezakegu.

### ATXOLINERANTZ

**I** RUKURUTZETAKO zelaietan, mendebalderako norabidean, metro gutxitara Arribiribilleta harria aurkituko dugu. Tamaina

ikaragarria du: 3,5 metroko luzera, 1,65 metroko zabalera eta 0,30 metroko altuera. Barandiaranen ustetan, harriaren berezko kokalekua ez omen da hau. Beste nonbaitetik ekarritakoa ei da. Aurrerago, bide seinaleei jarraituz, Kurutzebakar dolmenaren ondotik pasatuko gara. Irukurutzetatik berrehun bat metrotara WSW norabidean aurkitzen da. Izena bidearen eskubialdeko tontortxoko mugariaren gaineko guruzetik hartu du. Mendikutxatxo ere bada ondoan. Hegoaldera doan orbelez estalitako bide lokaztuari jarraituz, Aizpuruko zabala trikuharria aurkituko dugu berehala. Tumuluaren erdigunean bi harlauza handi daude oraindik ikusgai. Marka zuri-horiek norabidea iradokitzen diguten arren, ez segitu horrelakorik, marka hauek PR-GI-94 bidearenak baitira, eta Elosuko Santuxu ermitara bueltan eramaten dutelako. Kurutzebakar dolmenera atzera egin behar dugu eta handik

mendebalderantz jarraituko dugu pago artean, orbela zapalduz, bidea geuk eginez. Basotik irtetea panoramika berria izango dugu aurrez-aurre: Oiz eta Urko (W 280°), Anboto (SW 250°), Mugarra (W 270°) eta bien artean atzeko aldean Gorbeia.

Mandoiturrin ur zurrutada goxoa egin ondoren, PR-GI-109 bideari jarraituz edota honen aldameneko basoaren gerizpean goroldioz estalitako enbor, sustrai eta adarren artean ibiliz, Nahasiko Goena (250 metrotara NW norabidean) tumuluarekin topo egingo dugu. Mendi gandorra garoak estaltzen du orain, Atxolin eta Karakate aurrez-aurre ditugularik.

Pagobedeinkatua (pago baten azpian 150 metrotara WNW norabidean) eta Azkoin (bidetik hogeit bat metrotara eskubialdera pago artean) dira hurrengo tumuluak, hurrenez hurren. Azken honen ondotik ateratzen den bidezidor batek Atxolin (851 m) gailurrera garamatza. Erdi bidean, bi tontorren arteko lepoan Atxolintxiki tumulua ikus dezakegu. Gailurrean berriz, harri megalitikoak dira nagusi. Behin eta berriz harriduraz geure buruari galdetzen diogu nola lortu zuten historiaurreko gizakiek harri erraldoi hauek mugitzea.

Tumuluaren erdialdean ia lurperatuta harlauza handi bat ikus daiteke oraindik. Aurreko kondairetan irakurri berri dugun bezala, gaur egun ere egitura megalitiko honen oinarrian gabonetan jaiotza polit bat jarri ohi dute urtero.

Atxolin mendia, 864 metro baino ez duen arren, Euskal Herriko begiratokirik hoberenetakoa da. Bertako ikuspegia ezusteko oparia



■ *Azkoin tumulua baso artean ezkatzen da, Atxolin mendiaren igoeraren inguruan*





■ Pagobedeinkatu tumuluak, sakratua omen zen pago batengatik hartu du izena. Ez dakigu zein den pago hori, baina ingurunearen bedeinkazioaren lekuko kurutze hau aurkitu dugu

da. Egun argietan, Aiako harrria, Pirinioak, Izarraitz, Hernio, Oiz, Santa Eufemia, Arno, Aralar, Aizkorri, Anboto, Udalatx, Gorbeia, Sálvada mendilerroa eta abar ikus daitezke. Ekarri prismatikoak!

Elosutik Atxolineraino egin dugun bide zatian baso artean ibili gara bereziki. Barandiaranek aipamen berezia egiten dio Atxolindik ikusten den baso itxien hedadura zabalari. Honen ildotik, lapur eta gaizkile askoren ezkutaleku bikainak zirelako hausnarketa egiten du. Azkoin dolmenaren inguruak antzinako lapur famatu baten ezkutalekua izan zirela diosku. Lapur honek Txandrua zuen izena eta Barandiaranen langileen esanetan, inguruko herritarrek airean izan zituen luzaro. Haren maltzurkeriak Azkoitiko Santa Kruz komentuan bukatu ziren. Lapurreta lasai egiteko, moja guztiei eskuak eta hankak lotu zizkien, gaisorik zegoen bati izan ezik. Honek ohearen ondoan komentuko kanpaiaren soka zuenez, alarma jo omen zuen.

Atxolin mendiaren harira itzulirik, jentilen beste elezahar batzuk ere jasotzen ditu Barandiaranek bere idazkietan. Mendiaren magalean dagoen Aritzaga baserriaren ondoan Lezeagako haitza aurkitzen da, teilatu hegala gisa mendiaren aldapaik ateratzen den haitz puska. Kondairaren arabera, jentil batek jaurtiki zuen harria Atxolingo tontorretik habaila erabiliz. Soraluzetik jasatzen den eta Deba ibaira doan Osumako erreka dagoen haitz puska ere jentil batek jaurtiki omen zuen habailaz Atxolindik.

### KARAKATERANTZ

**A** TXOLIN gailurretik Karakateko antena erraldoia ere ikusgai da. Harantz goaz orain, mendebalderantz alegia. Gailurretik 150 metrotara NNW norabidean, Salbua izeneko tumulua dago, eta 800 metrotara mendebalderantz Iruia trikuharria. Bertatik Debagoiena ibarraren ikusmira ederrenetakoa dugu. Beste 200 metro aurrerago NW norabidean Gizaburua tumuluaren inguruan belar leun eta goxoaz goza dezakegu baita, tarteka-marteka, pinu sailtxoen gerizaren freskotasunaz ere. Inguru hauetatik ilusenti



■ Karakate, Muneta edo Kortazar izeneko gailurra da gure zeharkaldiaren azken jomuga, Elgoibarrera jaitsi aurretik. Deba ibarraren ikuspegia sekulakoa da

ederrak ikus daitezke, neguan batez ere! Horretara berriz ere etortzea merezi du!.

Orain arte Anboto atzean ezkutatuta egon diren Oriol eta Ipizte dira ikusgai. Elgoibar ere iparraldeko magalaren behealdean ikus dezakegu eta prismatikoak aldean badaramatzagu, hegoaldean Elgea mendilerroko aerogeneradoreak ere ikusiko ditugu.

Gailurreko plakan "Muneta 742 m" jartzen duen arren, Karakate izenaz ezagunagoa da. Kortazar izena ere hartzen du. Hiru izen hauek inguruko baserriek eman diote, Deba ibarrean, Eibar, Soraluze eta Elgoibar artean, sekulako desnibelarekin altzatzen den

mendi honi. Tebistaren antenak direla eta, errepedez ere igo daiteke bertaraino Soraluze herritik. Jaitsierari ekin aurretik, inguruko mendiak ezagutzeko balio duen maparen aurrean sekulako ikuspegiak gozatu dugu: Mendebaldean aurrez-aurre Eibar dakusagu eta honen atzeko aldean Mugarra. Iparralderago Urko eta Oiz, baita Arrateko santutegia ere, eibartarren Ama Birjinaren bizilekua. Hegoaldera Leungana eta gure bizkarrean gaur egindako zeharkaldi osoa Irimo (SE 140°), Gorla (SSE 150°), Agirreburu eta Atxolin (ESE 120°).

Elgoibarrera jaisteko, Soraluzetik datorren errepidea gurutzatu eta antena inguratzen duen ate metalikoaren parean jaiotzen den bidezidorrari jarraituz (SW 230°) Kortazarko gurutzerantz abiatuko gara. Bertara heldu aurretik, bidegurutzearan NNW (330°) norabidea harturko dugu basoan behera bidezidor estuari jarraituz. Berehala, iturri baten ondotik pasatuko gara. Ahalik eta jaitsiera motzera egiteko bide nagusia zeharkatzen duten bidezidor guztiak hartuko ditugu. Noizean behin geldialdiak egitea gomendatzen dizuegu ibarraren ikusmiraz gozatzeko: Baserriak ibar osoan zehar sakabanatuta daude eta ikuspegiak xarma berezia du. Kalamua (NW 315°) eta Arno (NNE 140°) ditugu ibarreko tontor nagusiak. Azkar batean galduko dugu altuera. Azken minutuak NE (60°) norabidean ibiliz, San Roke ermitaren inguruko baserrietaraino helduko gara. Kilometro baten buruan, asfaltoari jarraituz, Elgoibarko erdigunean bukatuko dugu zeharkaldia.





• **Maurketa tumuluaren aldamenean Intxausta txabola ardien babesleku modura erabili ohi da**

## BARANDIARANEN AURKIKUNTZAK ESTAZIO MEGALITIKOAN

**B**ARANDIARANEN, Arantzadik eta Eguren 1921eko uztailean Elosua-Soraluze estazio megalitikoan eginiko indusketa lanek ez zuten aurkikuntza garrantzitsurik ekarri. Antzinatik inguruneak oso jendetsuak izan direnez eta altxorren kondaira ugari ere izan direnez, hamaika altxor bilaketa egin izan ziren gure hiru antropologo aurretik. Kondaira hauek euskal mitologiako *jentilekin* daude lotuta. Izaki hauek kristautasunaren aurreko euskal herritar paganoen sinbolo dira. Erraldoiak eta indartsuak ziren, mendietan bizi ziren eta etsaiei harri handiak botatzeko ohitura zuten. Haiek eraiki omen zituzten zutarriak (jentilarriak) eta harrespilak (jentilbaratzak). Lur garaiki lantzeko gai ziren eta uzta oparoak jasotzen omen zituzten, aberastasun handiak pilatuz. Hildakoan beren aberatasunekin batera lurperatzen zituztela sinestu izan da luzaroan.

Bestalde, bordak eta hesiak jasotzeko harlauzen lapurreta eta erabilera lotsagabea salatzen dute Barandiaranek eta bere lankideek. Ondorioz, tumulu gehienetan ez zituzten hilobia osatzen zuten harlauza guztiak aurkitu. Horregatik batzuk trikuharriak dira eta beste batzuk, ordea, tumuluak soilik:

**Trikuharriak:** Agirreburu, Kerexetaegia hegoaldekoa, Kerexeta, Irukurutza, Aizpuruko zabala, Atxolin, Iruia.

**Tumuluak:** Trekutz, Maurketa, Kerexetaegia iparraldekoa, Kurutzebakar, Nahasiko Goena, Pagobedeinkatu, Azkoin, Atxolintxiki, Salbua eta Gizaburua.

Agirreburun, giza-aztarnak eta zeramika zatiak jaso ziren. Azken hauekin posible izan zen ontzi oboide txiki baten profila berreraikitzea. Harri leunezko aizkora bat ere aurkitu zuten. Maurketan zeharkako trunkadura duen trapezio asimétriko bat eta harri beltzeko bi iduneko-ale agertu ziren. Kerexetaegia



• **Barandiaran**  
Foto Jacques Blot

hegoaldekoan, berriz, harri leunezko aizkora txiki bat, kirten eta hegaldun gezi punta bat.

Ez zuten brontzerik ezta kobrerik aurkitu, baina zeramika zatiek eta landutako suharriek nahiz leundutako harriek, Neolitiko-Brontze garaiko gizon eta emakumeek egin zituztela adierazten digute. Garai hau K. a. 3000. urtetik 900. urtera doa. Trikuharriak edo Jentiletxeak gorpuak ehortzeko eraturiko monumentu megalitikoak ziren. Hilobia zutik jarritako bi harrik eta gainean etzandako harlauza batek osatzen dute. Trikuharria harri multzoaz inguratuta aurkitu ohi da (tumulua). Egitura osoari *trikuharri* deritza. Baina badira tumulurik ez duten trikuharriak ere. Estazio megalitiko honetan, trikuharria aurkitu zuten Agirreburun, Aizpuruko zabalean, Atxolinen, Iruian, Irukurutzetan eta Kerexetaegia hegoaldekoan.

Gainontzekoetan, aldiz, tumulua baino ez. Barandiaranek dioenez, Historiaurreko gizakiaren ardura garrantzitsuenak bi ziren: bizitza edozein arriskurengandik babestu eta taldekideen mantenua segurtatu. Dirudienez, ardura hauek hildakoenganako ere baziren eta horregatik trikuharriak goi lautadetan, ondo babestutako lekuetan edota mendi gailurretan egiten zituzten harriz eta lurrez estalita.

Antopologo hirukoteak txanpon frantsesak eta berunezko bala biribilak ere aurkitu zituen. Txanponetako batean zera irakur daiteke: *La Nation, La Loi, Le Roi.*-1793. Honek frantziarren inbasioaren garaian inguru honetan tiroka ibili zirelan adierazten digu, ingurune hau estrategikoa baitzen. Izan ere, 1794ko abenduaren 2an Gabriel Mendizabal bergararrak Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako boluntarioen batailoien buru, frantziarrak garaitu zituen mendilerro honetan. Hortaz, Maurketa ondoko basoaren *Prantsesbaso* toponimoak badu honekin erlaziorik.

### Nola heldu

Urretxuko hiriguneari Labeaga kalearen bukaeran kartelek zalantza gabe Santa Barbararaino gidatuko gaituzte, oinez nahiz kotxez bi edo hiru kilometroko errepidean gora (GI-3771). Ipiñarieta kalearen iparraldeko muturrean ere errepide honi jarraituz joan gaitzke Santa Barbararaino. Zeharkaldia burutzeko garraio publikoa ere erabil dezakegu. Eibarren goizez (7:45ean) Iruñera doan autobusak (PESA) Zumarragan geralekua du (8:30ean). Elgoibarren tren nahiz autobusa (EuskoTren) har dezakegu Eibarrera bueltatzeko. Urretxu aterpetxean ere ibilaldiaren aurreko

gaua pasa dezakegu (Tel. 943723387). Aukera hau balia dezakegu aurreko egunean Goierri aldeko gune interesgarriak ezagutzeko.

### Gure historiarekin lotutako beste bisita batzuk:

Urola garaian zenbait ikuskizun ditugu geure arbasoen historiari lotuta:

Ezkioko Igartubeiti baserria (943722978) Gipuzkoako zaharrena omen da. Bertan euskal baserriaren historia, bilakaera eta bertan bizi izan ziren biztanleen eguneroko bizimodura hurbiltzeko aukera eskainiko digute.

Legazpin Euskal Burdinaren Museoan (943730428), Mirandaola burdinolak

industrializazioaren lehen aztarnak erakusten dizkigu. Zumalakarregi museoa (943889900) XIX. mendeko Euskal Herria ezagutzeko gunea da eta Telleriarte auzoan dagoen Erraizabal baserrian (XVI. mendeko) Artzaintzaren Ekomuseoa (943730428) ere bisita dezakegu.

### Bibliografía

BARANDIARAN, J. M., *Vasconia Antigua: Tras las Huellas del Hombre (I)*, VII. liburukia, Obras Completas, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1975.

BARANDIARAN, J. M., *Vasconia Antigua: Tras las Huellas del Hombre (II)*, VIII. liburukia, Obras





■ Karakatetik iparralderantz Kalamua mendia eta bere magaleko baserriak ikus ditzakegu



■ Negu garaian pago enborretako goroldioak kolore bizia hartzen du

## HISTORIAURREKO ERAIKUNTZEN GLOSARIOA

**TRIKUHARRI:** Lurrean zutik hainbat harri finkatu eta, hauek estaltzeko, harlauzaz osatutako gaina. Gorpuak ehorzteko eraturiko monumentu megalitikoak ziren. Beste hizkuntza askotan *dolmen* esaten zaie. Bretoieraz hitz honek 'harrizko mahaja' esan nahi du. Hilobi hauek lurrezko nahiz harrizko muinoen gainean eraikitzen ziren (tumuluak) eta honen mugak batzuetan harriz eginiko biribil batekin inguratzen ziren (harrespilak). Euskal Herrian megalitotik arruntena da. Batzuk antzinatik dira ezagunak. Horregatik kondaira askoren iturri izan dira. Jentiletxe izena ere hartzen du (adibidez Ataunen), jentilek eraikitzen zituztela sinesten baitzen. Sorginen etxeak zirela uste zuten beste batzuek, Aguraingo Sorginetxe izeneko trikuharriaren izenak dioskun bezala. Zutarri: Lurrean tente jarritako harri luzea da. Asko daude bi metro baino garaiagoak direnak. Beste batzuek bost metro baino gehiago ere izaten dute. Neolitikoen bukaera eta Brontze Aroaren hasieraren garaikoak dira. Nazioartean bretoierazko *Menhir* hitza erabiltzen da. Euskal Herrian ez daude asko. Harrespila: Biribilean ezarritako harri multzoa da, lursail berezi bat mugatuz. Jentilbaratza edo Mairubaratza izenez ere ezagunak dira, eraikuntza jentil edo

mairuei egotzi izan baitzaie. Neolitiko eta Brontze Aroaren garaikoak dira. Nazioartean *cromlech* termino aurre-erromatarra erabiltzen da harrespilak izendatzeko.


**Gatzeluzar:** Zenbait historiaurreko gotorlekuk hartzen duten izena da, batez ere Ipar Euskal Herrian. 300 eta 600 metroko garaieran kokatzen dira, haranen arteko igarobidea militarri kontrolatzeko. Brontze Aro amaierako edo Burdin Aro hasierako talde militarrek eraiki zituztela uste da.

**Cairn** (gaelikoz): Itxura konikoa duen harri multzoa da. Brontze garaian hilobia adierazteko erabili ohi zen. Gaur egun, aldiz, mendi bideak adierazteko erabiltzen ditugu.

**Tumulu:** Ehorzleku baten gainean eraikitzen den harrizko eta lurrezko meta da, eskuarki Harri Aroan edo Brontze Aroan egina. Erdi Europan, Erdi Brontze Aroari Tumuluena kultura ere deitzen zaio, garai horretako kultura arkeologiko nagusia baita.

Hasiera batean, gorpuak estaltzen zituzten harrizko piloak izaten ziren. Baina denborak aurrera egin ahala, tumuluena tamaina handituz joan zen, benetako muino artifizialak osatu arte.

Gorpuarekin batera, armak eta ondasun garrantzitsuenak lurperatzen ziren. Batzuetan, gizabanako bat baino gehiago ehorzten ziren batera.



■ Barandiaranek egindako Kerexetaegia hegoaldekoa tumulu eta trikuharriaren krokisa. BARANDIARAN, J.M., "Vasconia Antigua, Tras las Huellas del Hombre (II)"

Completas, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1975.

BARANDIARAN, J. M., *Eusko Folklore*, II. liburukia, Obras Completas, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1973.

<http://www.urretxu.net>

### Kartografia

*Sierra de Izarraitz, Montes Pagoeta y Ernio*, 1:25000 eskala, 6. zenbakia, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Eusko Jaularitza.

Mapa Topográfico Nacional, 1:25000 eskala, 88-I orria, *Bergara*, Instituto Geográfico Nacional.

Mapa Topográfico Nacional, 1:25000 eskala, 88-II orria, *Zumarraga*, Instituto Geográfico Nacional.

Mapa Topográfico Nacional, 1:25000 eskala, 63-III orria, *Eibar*, Instituto Geográfico Nacional.

### Ibilaldiaren perfila

